Kontratu honen helburua Amorebieta-Etxanoko Udalan isurketak kontrolatzea da eta honakoak barne hartzen ditu:

1.1

Udal Kolektoreetako Isurketa Baimenak tramitatzeko laguntza teknikoa, baita proiektatutako aurre-tratamenduen bideragarritasunaren azterketa, isuriaren baldintzen ezarpena, autokontrola eta aipatutako konplimenduaren azken egiaztapena ere.

1.2

Udalaren esparruan gertatzen diren noizbehinkako edo ustekabeko isuriak aztertzeko laguntza teknikoa, baita laginen bilketa ere, eta, beharrezkoa denetan, isuritako hondakinuren tratamenduaren bideragarritasun azterketa.

1.3

Isurketen Kontrolean sortutako informazioa kudeatzeko datu-base baten eguneratzea.

1.4

Udal onbideratze sareen digitalizazioari, eguneratzeari eta harrerari laguntza, industria guneak bereziki nabarmenduz.

1.5

Laborategiko analisien zerbitzua eskaintzea, Kolektoreetako Isurketa Baimenak aztertzeko zein gertatzen diren noizbehinkako edo ustekabeko isuriak aztertzeko.

1.6

Amorebieta-Etxanoko Udaleko isurketak ibilgu publikoan egin ahal izateko baimenak izapidetzeko laguntza teknikoa eta beraietan jasotako baldintzak betetzea.

1.7

Astepeko EDAR-en, Dudeako EDAR-en isuriak, eta La Bañerako etorkizuneko EDAR-en isuriak eta Amorebieta-Etxanoko onbideratze orokorrerako sistemaren kolektoreen lehen mailako sarea kontrolatzeko Laguntza Teknikoa, kontrasteko analisiak barne.

1.8

Isuritako bolumenagatik edo gehiegizko kutsadura kargagatik Udalaren onbideratze erroldatik at dauden enpresei hileroko edo urteroko aldizkakotasunaz bidaltzen zaizkien onbideratzeko fakturen proposamenak egitea eta uraren kanona burutzea.

1.9

Gertatutako isurketetatik jasotako laginak aztertzeko Laborategiko Analisi zerbitzua.

2. Artikulua **KONTRATUAREN HELBURUAK**

Honako hauek dira kontratuaren helburuak:

- Amorebieta-Etxanoko udalerrian kokatutako enpresen Kolektoreetako Isurketa Baimenak erregularizatzea, Udal Kolektoreetako Isurketa Araudia jarraituz eta C edo D gisa sailkatutakoei lehentasuna emanez.
- Gerta daitezkeen noizbehinkako edo ustekabeko isurketen jatorria zehaztea, isurketak ikuskatuz edo laginen kanpainen bidez eta ugaritu daitezen saihestu ahal izateko, prebentziorako neurriak eta neurri zuzentzaileak ezartzea.
- Kolektoreari isurien kontrola hobetzera eta Amorebieta-Etxanoko udalerrian ibilgu publikora egindako isurien eragina txikitzera zuzendutako ekintzak sustatzeko laguntza. Puntu honetan isurketen arloan udal araudia prestatzeko laguntza teknikoa ere barne dagoela ulertu behar da, baita udal honek Kantabrikoko Konfederazio Hidrografikoari isurketak egiteko baimena eskatzeko edo baimenak eguneratzea eskatzeko beharrezkoak diren agiriak prestatzea ere.
- Isurketen Kontrolean lortutako informazio osoa kudeatzeko sistema bat edukitzea, bizkorra eta eguneratzeko erraza izatea ahalbidetzen duena.

3. Artikulua **KONTRATUAREN IRAUPENA**

3.1

Kontratua **BI (2) URTEZ** egongo da indarrean, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Kontratuaren epea bukatu baino lehen, eta bi aldeak ados egonez gero, urte beteko luzapenetan kontratua luzatzeko aukera egon liteke, araudian ezartzen diren baldintzak betez, gehienez, bi (2) urte luzatuz.

Aurreikus daitekeenez, 2021eko urriaren 1ean hasiko dira zerbitzuak eskaintzen.

3.2

Isurketen Kontrolerako zerbitzuak Oinarri hauetan adierazten diren epeak betetzen direnean bukatuko dira, hori baino lehen kontratua hautsi ezean. Zerbitzuen bukaera eguna baino gutxienez 30 egun lehenago zerbitzu epe horretan zehar burututako lanen laburpen-memoria gauzatuko da.

3.3

Zerbitzuen bukaera baino lehenagoko hilabeteetan, eta Amorebieta-Etxanoko Udalak horrela xedatuz gero, esleipendunak Isurketen Kontrolaren arduradunen ohiko zereginak burutzen dituzten langileekin aldiberekotasunean eta elkar-laguntzan kontratua gauzatzea erraztu beharko du, edozein momentutan zerbitzuaren jarraitutasuna eta martxa ona bermatuta egon daitezen.

4. Artikulua ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK.

4.1

Esleipenduna behartuta egongo da, lanetan kontratatuko dituen pertsonen arabera, lan eta gizarte arloetako legeriaren kontuetan indarrean dauden xedamenak betetzera, baita baldintza administratibo eta fiskalak betetzera ere.

4.2

Esleipenduna behartuta egongo da bere jarduera burutu bitartean laneko segurtasuna eta osasunaren kontuetan indarrean dauden xedapenak betetzera. Lanekin hasi baino lehen, laneko segurtasuna eta osasunari dagokion plana aurkeztu beharko du Amorebieta-Etxanoko Udaleko Erregistroan, eta proiektu hori burutuko den jardueraren berezko ezaugarrietara egokitua egon beharko da.

4.3

Esleipenduna behartuta egongo da materialak, tresneria eta kontratuaren xedea diren lanak egokiro burutzeko beharrezkoak izango diren bestelako lanabesak ordaintzera.

4.4

Esleipenduna behartuta egongo da lan horiek PPTan adierazitako zehaztapenen arabera burutzera.

4.5

Esleipendunak Amorebieta-Etxanoko Udalarekin lan egingo du Isurketen Kontrolaren arazoa konpontze aldera, eta kontrol hori hobetzeko zein ibilgu publikora isuriak gutxitzeko jarduerak sustatuko ditu.

ESLEIPENDUNAK BETE BEHARKO DITUEN LANEN DESKRIBAPENA

5. Artikulua **ZERBITZUEN DESKRIBAPEN OROKORRA**

Jarraian kontratuaren xedearen arabera Esleipendunari betetzea egokituko zaion zerbitzuak deskribatzen dira. Jarraian datozen ataletan zerbitzu horietako bakoitzaren garapen eta deskribapen zehaztua eskaintzen da.

5.1 Kolektoreetako Isurketa Baimenak eta bestelako lizentziak (obra-lizentzia, jarduera lizentzia, jarduera hasi aurreko komunikazioa, lehenengoz okupatzeko lizentzia etab.) tramitatzeko laguntza teknikoa.

Honakoak barne hartzen ditu:

a) Enpresek eskatutako Kolektoreetako Isurketa Baimenen eskaeraren azterketa eta Biltzaileari Isurien Araudia betetzearen gaineko bideragarritasunaren zehaztapena, proposatutako konponbidearekin batera.

b) Kolektoreetako isurketak onartu baino lehen ezarri beharreko neurri zuzentzaileak eta autokontrolerako neurriak.

c) Ezarritako zuzenketa neurriak betetzen direla ikuskatzea.

d) Isurketak kobratzeko irizpideak zehazteko laguntza (C sailekoentzat baino ez).

e) Isurketa Baimenen baldintzak kontrolatzeko ur zikinen ibilguetako laginak hartzea.

f) CAD sistema erabiliz, enpresaren ebakuazio sarearen eskema burutzea, udal kolektoreetako isurketen baimenean barne hartzeko.

g) Ikusketak burutzea (ohikoak, jarduera hasi aurreko komunikazioa, lehenengoz okupatzeko lizentziak, etab.) udal zerbitzu teknikoekin, instalazioaren isurketa likido eta husteko sareei buruzko txostena prestatuz.

h) Udal-sareetako saneamendu- edo euri-hartuneetan partikularrek edo enpresek egiten dituzten jarduketei (hobi septikoak deuseztatzea, hoditeriak aldatzea edo konpontzea, sare bereizleak egitea, etab.) buruzko obra-lizentziaren eta lotutako dokumentazioaren (proiektu teknikoa, memoria, etab.) eskaerak berrikustea, eta horiek behar bezala gauzatzen direla gainbegiratzea obretara bisitak eginez, obra-lizentzia eta egikaritutakoa bat datozela egiaztatuta.

i) Isurketen kontrolarekin zerikusia daukan udal legedia sortzeko laguntza teknikoa, baita industria, bizitegi zein beste mota bateko urbanizazio proiektuen saneamendu eta

euri-uren sareak berrikusi eta/edo aldatzea proposatu, Udalak ontzat eman eta onartu aurretik.

5.2 Noizbehinkako edo ustekabeko isurketen ikerketa burutzeko laguntza teknikoa.

Honakoak barne hartzen ditu:

a) Noizbehinkako edo ustekabeko isurketen jatorriaren azterketa, bai kolektoreetakoa zein ibilgu publikoetakoa ere, eta, beharrezkotzat jotzen denetan, laginen bilketa eta parametro adierazgarrienen azterketa.

b) Ponpaketarako edo arazketarako instalazioetan edo gainontzekoetan aipatutako isurketak ingurumenean izan duen eraginaren analisia, eta, Udalak eskatuz gero, eragin horrek sortu duen kostu ekonomikoaren balorazioa.

c) Neurri zuzentzaileen eta prebentziorako neurrien ezarpena eta sustapena, gertaera horiek errepika daitezen saihesteko.

5.3 Sortutako informazioa kudeatzeko datu-base baten eguneratzea.

Honakoak barne hartzen ditu:

d) Isurketen kontrolerako zerbitzuak burutzearen ondorioz lortu diren datu, txosten, plano eta abarrak Amorebieta-Etxanoko Udaleko datu-basean (egun ACCESS formatuan) eguneratuko dira. Lizitatzaile bakoitzak datu-base korporatibo propioa proposatu ahal izango du, eta bere kontura egingo du. Era berean, kontratua amaitzean, Udalaren datu-basea entregatu ahal izango du (Access formatuan, AIRTABLE edo erraz eskuratzeko eta editatzeko moduko beste formatu komertzial batean), eguneratuta kontratuan zehar sortutako datuekin.

e) Laneko datu-baseak (korporatiboa edo udalekoa) web bidezko sarbidearekin funtzionatuko du, biltegiratze fisikoa ezabatuz, udal-langileek eguneratutako dokumentazioa denbora errealean eskuratu dezaten. Erabili beharreko plataformak, komertziala edo korporatiboa, bateragarria izan beharko du udalaren datu-basearen egungo egiturarekin (gutxienez Airble motakoa), eta esleipendunak kudeatu beharko ditu udal-erabiltzaileen baimenak eta segurtasun-kopia gomendagarriak egin beharko ditu. Esleipendunak erabili beharreko plataforma, haren ezaugarriak eta zerbitzu horretara nola egokitzen den deskribatu beharko du, eta udal-langileek plataforma horretan kontsulta espezifikoak egiteko dituzten aukerak adierazi beharko ditu. Datu-basearen edukiak udalaren jatorrizko formatura esportatzeko modukoa izan beharko du.

f) Datu Basean sartutako lanek eta datuek udal-espedienteen datu-basearekin duten erlazioari eutsi beharko diote espediente-zenbakiaren bidez, eta esleipenduna arduratuko da udal bi datu-baseak bat etortzeaz.

5.4 Udaleko onbideratze sareak digitalizatzeko, eguneratzeko eta jasotzeko laguntza.

Honakoak barne hartzen ditu:

e) Inbentarioak egiteko, saneamendu-erregistroak irekiko dira, eta sareak egiaztatuko dira trazatzaile hidrologikoen eta kamaradun pertikaren bidez. Anomaliak konpontzeko saneamendu-sareak aldatzeko proposamena egingo da, Udaleko zerbitzu teknikoek eskatzen dituztenean.

f) Eroanbideen diametroak eta hondoko kotak hartuko dira, eta kota horiek erlatiboak izango dira, erreferentzia gisa kutxetaren estalkia erabilita. Erreferentzia zehatzetatik abiatuta kutxatilatik (x, y) koordenatua lor badaiteke, adieraziko da.

g) Inbentarioaren emaitza udaleko GISean erabilitako oinarrizko kartografian irauliko da. Ondoriozko sareak CAD sisteman trazatuko dira, eta sistema hori bateragarria izango da Udalean dagoenarekin (dgn edo .dwg formatuak), eta geruzetan eta blokeetan egituratuta egongo dira, udalaren GISarekin bateragarriak direnak.

h) Baldintza egokietan dagoela eta onbideratze sareetako eta industria, etxebizitza edo bestelako urbanizazioetako euri-sareen obra bukaerako proiektuekin bat datorrela egiaztatzea, udalak hori jaso dezan.

5.5 Amorebieta-Etxanoko udalerriko Ibilgu Publikoko Isurketen Baimenetan eskatzen diren baldintzan betetzeko laguntza teknikoa.

Honakoak barne hartzen ditu:

c) Eskumena duen organismoak eskatzen duen dokumentazioa betetzeko laguntza teknikoa, isurketen ezaugarriak adierazten dituena, udal instalazioetarako Jabari Hidrauliko Publikoko Isurketen Baimenean ezarritako ezinbesteko baldintzak betetzeko.

d) Udal instalazioetako Ibilgu Publikoko Isurketen Baimenetan zehaztutako baldintzak betetzeko laguntza teknikoa.

5.6 Udal EDAR (hondakin uren araketa estazioa) eta kolektoreen lehen mailako sarea kontrolatzeko laguntza teknikoa.

Honakoak barne hartzen ditu:

c) EDARen (Astepe eta Dudea, La Bañera eta etorkizunean instalatu daitezkeen beste batzuk) ustiatzaileek burututako analisiak eta kolektoreen lehen mailako sarea egiaztatzeko laguntza teknikoa.

d) URA – URAREN EUSKAL AGENTZIAK, udal instalazioei dagokienez, eska lezakeen dokumentazioa idazteko laguntza teknikoa.

5.7 Udalak zehaztuko dituen enpresei (gehienez 10 enpresari) uraren onbideratzearen eta kanonaren hileroko fakturak bidaltzeko laguntza teknikoa.

Honakoak barne hartzen ditu:

c) Kontadoreen Irakurketa Zerbitzuaren esleipendunak emandako kontadoreen irakurketaren datuak egiaztatu eta alderatzea, baita fakturatu beharreko enpresek eskainitako auto-kontrol analisien datuak ere.

d) Auto-kontrolen eta udalean indarrean dauden tasen arabera fakturatu beharreko zenbatekoen kalkulua. Ur-horniketaren hileroko faktura jasotzen duten enpresei (gaur egun enpresa bakarrari) aplikatzeko Ur-kanonaren kalkulua barne hartuko da.

5.8 Laborategiaren analisirako zerbitzua

Kontratu bakoitzaren oinarrizko lanak betetzeko orduan hartu beharreko laginak laborategian analisia egitea. Honako parametro hauetan:

- **pHa**
- **Eroankortasuna**
- **SST**
- **DQO**
- **DBO5**
- **NTK**
- **Amonioa**
- **Nitritoen nitrogenoa**
- **Kobrea (Cu)**
- **Zinka (Zn)**
- **Kromoa (Cr)**
- **Nikela (Ni)**
- **Aluminioa (Al)**
- **Burdina (Fe)**
- **Beruna (Pb)**
- **Zianuroak guztira**

- **Nitratoen nitrogenoa**
- **Nitrogenoa guztira**
- **Fosforoa guztira**
- **Fosfatoak**
- **Hidrokarburoak guztira, olioak eta koipeak**
- **Detergente tentsioaktiboak**
- **Fenolak**
- **Formaldehidoa**
- **Kloruroak**
- **Sulfatoak**
- **Ekotoxikotasuna**
- **Hezetasuna (lohietan)**
- **Trihalometanoak**

Analisien ondoren, bakoitzari dagokion analisiaren txostena aurkeztu beharko da, lortutako emaitzak adieraziko dituena. **ISO/KAEaren UNE-EN 17025 arauaren arabera, erabiliko den laborategia/k goian adierazitako parametroen %85erako gutxienez ENAC-en egiaztapena jasota izan beharko du.**

Laginketa eta laginaren trazabilitatea:

Enpresa esleipendunak laginketaren laginketa- eta trazabilitate-prozedurak izan beharko ditu, UNE EN ISO/IEC 17025 arauan oinarrituta eta ENACek egiaztatuta, hondakin-uren eta azaleko edo lurpeko ur kontinentalen laginketarako, eskuzko laginketa edo lagin-hartze automatikoaren bidez egindako lagin bakunen edo konposatuen bidez, bai eta datuak in situ hartzeko ere (pH-a, eroankortasuna eta tenperatura).

5.9 Burututako lanen dokumentu euskarria.

Deskribatutako eginkizunekin zerikusia duten lan guztiak horretarako sortutako datu-basean dokumentatuko dira, baldintza-agiri honen 5.3. puntuaren arabera. Datu-baseak etengabe eguneratuta egon beharko du, udal-langileek espedienteen egoera kontsultatu ahal izan dezaten.

Esleipendunak dagozkion txostenak egin dituela ofizialki jasota gera dadin, eta txosten horiek udaleko sail teknikoetan egin beharreko izapideak sor ditzaten, laguntza teknikoak idatzitako txostenei sarrera emango zaie Udalean, erregistro elektroniko bidez. Horretarako, esleipendunak ziurtagiri digital egokiak kudeatu beharko ditu.

5.10 Koordinaziorako bilerak.

Hilean behin gutxienez, isurketak kontrolatzeko ardura jaso duen Teknikaria Zerbitzuaren Eskumeneko Zuzendaritzarekin bilduko da aurrez aurre edo birtualki, aurreko hilabetean burututako lanak berrikusteko eta hurrengo hilabeteko lanen plangintza egiteko.

6. Artikulua ESLEIPENDUNAK BERE ESANETARA IZAN BEHARKO DITUEN LANGILEAK

6.2 Langileen zerrenda

Parte-hartzaileek euren proposamenak eta prestakuntza zein esperientziari buruzko informazioa aurkeztu beharko dituzte, horrekin batera, Zerbitzuan lan egiteko konpromisoa hartu duten langileek agiriak aurkeztu beharko dituzte PPT honetatik sortutako betebehar guztiei erantzuteko eta zeregin horiek betetzeko.

Lizitatzaileak bere eskaintzan aurkeztu beharko ditu eskatzen diren analisiak burutzeko beharrezkoak diren langileak:

- **Isurketak kontrolatzera zuzendutako teknikari bat.** Lehentasuna emango zaio ingeniari tekniko edo antzekoren baten profila izateari (ahal dela kimikan espezializatua izateari), eta antzeko lanetan esperientzia handia izan eta egiaztatu beharko du. %100eko lanaldi osoa bete beharko du.
- Aldian-aldian isurketak kontrolatzeko ardura duen teknikariari laguntza eman liezaioketen talde teknikoko kideen zerrenda. Langile horien prestakuntza eta alor horretan daukaten esperientziaren agiriak aurkeztu beharko dira.

6.2 Esleipendunak, esleitutako langileei dagokienez, bete behar dituen baldintzak.

6.2.1

Esleitutako langileak eta lanaren antolakuntza indarrean dagoen lan arloko legerian xedatutakoaren araberakoa izango dira.

6.2.2

Kontratu honen xedea diren zerbitzuak eskaintzearen ondorioz sortutako esleipendunak kontratatutako langileak kontratuaren beraren lanaren menpean egongo dira, eta aurrerantzean langile horiek ezin izango dira inola ere Udalaren menpekoak izan. Horrela, udalak ezin izango du esleipendunaren eta bere langileen artean sor daitezkeen lan harremanetan esku hartu, PPT honetan xedatzen dena salbu.

6.2.3

Langile kopurua behar baino txikiagoa izatea ez da arrazoi izango ardura gutxiagotzeko.

6.4 Langileen prestakuntza eta politika

Lizitatzaileek jarraitu beharreko langileen politika proposatuko dute euren eskaintzetan, baita laneko prestakuntzarekin, segurtasunarekin eta higienearekin lotutako aspektu guztiak zein beharrezkoak diren osasun zerbitzuak ere.

Bajak eta absentziak.

6.4.1

Esleipendunak berehala bete beharko ditu gaixotasunen, oporren edo lanera ez joateko bestelako edozein ustekabeko arrazoiren ondorioz sor litezkeen bajek utzitako hutsunea, eta beti izan beharko ditu kontrolatuta kategoria bereko langileen asistentzia eta horiek burutzen duten lana.

Langileei ordainsarien pagamendua.

6.5.1

PPT honen xedea diren zerbitzuak kontratatzera zuzendutako Esleipendunaren giza baliabideek barne hartu beharko dituzte, gutxienez, indarrean dauden hitzarmenetan edo lan arloko Araudietan zehaztutako soldatak eta jornalak, eta momentu oro izango du Gizarte Segurantzaren ordainketen eta gainontzeko ezarritako karga sozialen berri.

6.5.2

Udalaren eskariari erantzunez, kontratuak iraun bitartean edozein momentutan, Esleipendunak dagokion entitateak esleitutako TC-1 eta TC-2 ereduen kopiak aurkeztu beharko ditu, edo dagozkion agiriak, gizarte aseguruen ordainketa egiaztatzea ahalbidetzeko. Betekizun horiek bete gabe ez dira fakturak ordainduko.

ESLEIPENDUNAK IZAN BEHARKO DITUEN BALIABIDE MATERIALAK.

7. artikulua **ZERBITZUAN ERABILI BEHARREKO BALIABIDEAK**

7.1

Burutu beharreko zerbitzuaren egoera kontuan hartuta, Ustiatzaileak ibilgailu bat izan beharko du, ahal dela zerbitzuari esleitutako furgoneta txikia, zerbitzu hau egokiro eskaintzeko ezinbestekoak diren desplazamenduak egitea ahalbidetuko diena.

7.2

Eskaera larriagoei erantzuteko edo komenentziarako edo Esleipendunaren aipamenerako, kontratuak iraun bitartean, Esleipendunak sakelako telefono bat izan beharko du. Telefono horren bidez, isurketak kontrolatzeko ardura duen Teknikariaren lanorduetan harremanetan jartzeko adinako estaldura izan beharko du. Estaldurarik ezaren, edozein arrazoi dela kausa zerbitzua etetearen edo momentu batez edozein tresna berariaz edo nahi gabe deskonektatzearen ondorioz, ez zaie garrantzirik kenduko Enpresa esleipendunari deiei ez erantzuteagatik ezar dakizkion zigorrei.

7.3

Txostenak burutzeko argazki kamera digital bat eduki beharko da, independentea edo beste gailu elektroniko batean integratutakoa, eta gutxienez 3 megapixeleko bereizmena duena.

7.4

Laginak hartzeko eta laborategian sartu arte kontserbatzeko **material egokia** (laginak automatikoki hartzeko aukera barne, behar izanez gero), eta erregistroak irekitzeko hainbat tresna.

7.5

Ekipo eramangarriak izatea, pH-a, tenperatura eta eroankortasun elektrikoa in situ neurtzeko.

7.6

GoPro motako edo antzeko bideo/argazki kamera, pertika teleskopikoaren gainean muntatua, erregistroak eta estolderia-hodiak ikuskatzeko, memoria-txartela duena, argazkiak edo bideoak gordetzeko.

7.7

Kontratu honen xede diren lanak egiteko **ekipamendu informatikoa eta lizentziak**.

8. Artikulua SEGURTASUNA ETA LANEKO ARRISKUAK

8.1

Ustiatzaileak indarrean dauden Laneko Segurtasun eta Higiene araudiak bete beharko ditu. Arrisku handieneko larrialdi egoerak bere gain hartuko dituen eta langileei horren gaineko prestakuntza eskainiko dien Jarduketa Plan egokia ezarriko da.

Lizitatzaileek jarraitu beharreko langileen politika proposatuko dute euren eskaintzetan, baita laneko prestakuntzan, segurtasunean eta higienearekin lotutako aspektu guztiak zein beharrezkoak diren osasun zerbitzuak ere.

9. Artikulua ZERBITZUAK ESKAINTZEKO ORDUTEGIAK

9.1 Ohiko ordutegia

Ohiko lanak burutzeko mantenu zerbitzua eskaintzeko ordutegia bat etorri beharko da, zati batean gutxienez, Amorebieta-Etxanoko Udaleko teknikarien ordutegiarekin (08:00-15:30), koordinazio egokia lortu ahal izateko.

9.2

Opor aldian zehar lanak burutuko direla bermatuko da, horretarako Esleipenduna ordezkatzeko langileak aurreikusiz.

ESKUMENEKO ZUZENDARITZA, IKUSKARITZA ETA LANEN KONTROLA.

10. Artikulua **ESKUMENEKO ZUZENDARITZA**

Kontratuan barne hartutako lanen Eskumeneko Zuzendaritza Amorebieta-Etxanoko Udalak izendatutako talde teknikoak burutuko du.

PREZIOAREN ETA ZERBITZUAK ORDAINTZEKO MODUAREN ZEHAZTAPENA.

11. Artikulua PREZIOAREN ZEHAZTAPENA.

PPT honetan aurreikusitako zerbitzuan, eskaintzeari dagokion prezio osoa honako baldintza hauen baturaren bitartez zehaztuko da:

- Laguntza teknikoa eskaintzera zuzendutako langileei dagokien prezioa.
- Zerbitzua eskaintzeko orduan burututako analisiei dagokien prezioa.

12. Artikulua LANEN ORDAINKETA

12.1 Fakturak

PPT honetan adierazitako lanen ordainketa hileroko fakturen bitartez burutuko da. Horietan hilabetean zehar eskatutako analisietatik sortutako kostu finko zein aldakorrak barne hartuko dira eta bereizi egin beharko dira.

Balioari klausula administratiboen pleguaren hamalaugarren klausulan jasotzen diren zigorrei dagozkien dedukziorik edo beste edozein dedukzio egonez gero, horiek hileroko fakturaren azken balioari aplikatuko zaizkio.

13. Artikulua PREZIOEN BERRIKUSKETA.

Kontratuak dirauen bitartean ez da prezioak berrikusterik onartu, ezta kontratuaren luzapenean ere.

14. Artikulua AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.

14.1 Dokumentazio teknikoa.

Aurkeztu beharko luketen dokumentazio administratiboa kontuan hartu gabe, Parte-hartzaileek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

- **Memoria funtzional eta teknikoa**, PPT honetan jasotzen diren zerbitzu eta lanak burutzeko aurreikusitako antolakuntza eta gauzatzeari dagokiona.
- **Zerbitzua eskaintzeko orduan erabili beharreko baliabide materialen deskribapena** (laginak hartzeko tresneria, giltzak eta erremintak, ibilgailuak, eta abar). **Atal honetan ezingo da zehaztu erabiliko den ibilgailuaren erregai mota.**
- Organigrama funtzionalean, zerbitzuak eskaintzeko bete beharreko lanpostuetan **esleitutako langile**en kategoria profesionala, antzeko lanetan duten esperientzia, eta abar adieraziko da. Proposatutako langileen Curricula Vitarun-ak ere aurkeztuko dira. Gainera, aurreikusitako Prestakuntza Planari buruzko informazio zehaztua eta PRL sistema aurkeztu beharko dira.
- Udalari aurkeztu beharreko bestelako **txosten ezberdinetan jaso beharreko informazioa**.
- **Organigrama funtzionala**.
- **Amorebieta-Etxanoko planoa**, isurketei dagokienez gune eta enpresa gatazkatsuenak adierazita.
- Egin beharreko analisian burutzeko **erabiliko den laborategia**, horrek egiazta ditzakeen parametroen portzentajea adierazita.

14.2 Prezioen justifikazioaren azterketa ekonomikoa.

Eskaintza ekonomikoaren dokumentuan azken prezioak justifikatzen dituen azterketa gehituko da. Dokumentu hori PPT honetako oinarrietan adierazitakoa betez burutuko da.

Alde batetik, laguntza teknikoari dagokion kostua adierazi beharko da, eta, bestetik, Laborategiko analisiei dagokien kostua. Azken horietarako, Plegu honen 5.8 puntuan adierazitako parametroen prezio unitario zehaztuak emango dira.

Proposamen ekonomikoan sartu behar den azken emaitza zehazteko, Laguntza Teknikoaren berezko ordainsariei honakoei dagokien zenbatekoa gehitu beharko zaie:

amorebieta
etxano

Parametroa	Lagin zenbakia
Ph-a	24
Eroankortasun elektrikoa (E.K.)	24
Esekitako Solido Totalak (EST)	24
Oxigeno-eskaera Kimikoa (O.E.K.)	24
Oxigeroaren eskari biologikoa 5 (OEB 5)	6
Kjeldahl Nitrogeno Totala (NTK)	18
Amonioa	6
Nitritoen nitrogenoa	6
Nitratoen nitrogenoa	6
Nitrogenoa guztira	6
Fosforoa guztira	6
Fosfatoak	6
Hidrokarburoak guztira, olioak eta koipeak	18
Detergenteak-tentsioaktibo anionikoak	6
Kobrea (Cu)	12
Zinka (Zn)	12
Kromoa guztira (Cr)	12
Nikela (Ni)	12
Aluminioa (Al)	12
Burdina (Fe)	12
Beruna (Pb)	12
Zianuroak guztira	6
Fenolak	2
Formaldehidoak	2
Kloruroak	6
Sulfatoak	6
Ekotoxikotasuna (Photobacterium phosphoreum)	2

Hezetasuna (lohia)	2
Trihalometanoak	2

Zenbateko horiek gastu orokorren industria onuren eta aplikazio-zergen portzentajeak aplikatu ondoren kalkulatuko dira eta horiek esplizituki adierazita egon beharko dira.

Amorebieta-Etxanoko Udalak beretzat gordetzen du, aurkeztutako eskaintzetako bat ere onargarritzat ez hartzekotan, Kontratu hau esleipenik gabe uzteko eskubidea. Kasu horretan PPT honen xedea den zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

Amorebieta-Etxanon, 2021eko apirilaren 6an

I. Eranskina

Amorebieta-Etxanoko Isurketa Kontrolerako zerbitzuan lan egiten duten langileen datuak

Nº	Abizenak eta izena	Antzinatasuna	Kontratu mota	Kategoria	Lanaldia	%	Empresak 2021erako aurreikusitako kostua
1	**R.S.**	**02/10/2011**	**Mugagabea**	**GP 4 Af. Tec.**	**Osoa**	**100**	40.602,51

II. Eranskina

Irizpide objektiboen bidez baloratu beharreko hobekuntzen deskribapena

1. HOBEKUNTZA: CCTV robotarekin berrikustea eta, ondoren, saneamendu- eta euri-sareen txostena egitea

Gutxienez 2 langilek eta telebista-zirkuitu itxia duen hodiak ikuskatzeko robot batek osatutako ikuskapen-ekipo bat jarriko da Udalaren esku. Udal honetako langileek proposatutako tarteak berrikusi ondoren, esku-hartzearen deskribapen-txosten bat egingo da, eta bertan gertakari garrantzitsuenak adieraziko dira (maldak, buxadurak, zuzeneko injertoak, arrakalak, etab.). Horrekin batera, bideo-artxibo bat ere egingo da, dagokion grabazioarekin.

Kostua ondorengo txostena barne: 100 €/orduko (+BEZ)

2. HOBEKUNTZA: Neurtzeko sistema jarraitua

Udal saneamendu-sareko 6 puntu posible egokituko dira. Bertan, txandaka, ezaugarri berdinak dituzten bi (2) ekipo instalatuko dira, gutxienez honako elementu hauez osatuak:

- PH-a etengabe neurtzeko zunda
- Eroankortasuna etengabe neurtzeko zunda
- Hoditeriako hondakin-uren mailaren neurgailua
- Datalogger, neurketan lortutako datuak biltegiratzeko eta berreskuratzeko.
- Abisuak eta alarmak kudeatzeko denbora errealeko komunikazio-sistema
- Ekipoen hornidura elektrikorako beharrezko bateriak

Hobekuntzan sartuko dira kontratuan zehar beharrezkoak diren bateriak eta horien luzapenak, dagokion kontrol-teknikariari eman beharreko prestakuntza, dagokion hedapen informatikoa eta urteko mantentze informatikoa.

Urteko kostu zenbatetsia: 3.942 € (+BEZ)

amorebieta
etxano